Gipuzkoako Foru Aldundia
Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko Departamentua

Diputación Foral de Gipuzkoa
Departamento de Promoción Económica, Turismo y Medio Rural

# Gipuzkoako Merkataritzaren eta ostalaritzaren sektorean digitalizazioa sustatzeko programako dirulaguntzen 2022. urteko deialdia.

**Urtea :2022** | Ekonomia Sustapena

## DESKRIBAPENA

Gipuzkoako merkataritzaren eta ostalaritzaren sektorea digitalizatzeko prozesua bultzatzea eta indartzea, sektore horien ekonomia eta enplegua suspertzeko funtsezko bideetako bat den aldetik.

## ENTITATE ONURADUNAK

1. Jarduera ekonomikoa duten pertsona fisikoak, nortasun juridikorik ez duten pertsona fisiko edo juridikoen taldeak eta pertsona juridikoak, baldin eta haien zerga-egoitza eta lantokia Gipuzkoan badago eta haien jarduera (2022ko urtarrilaren 1a baino lehen) oinarri hauen eranskinean zerrendatutakoen artean badago.

2. Zergabidearen bidez izapidetutako eskaeraren dataren aurreko 15 egun naturaletan TicketBAI altako 15 fitxategi gutxienez Gipuzkoako zerga-administrazioan jaso izana, **TicketBAI** betebeharra garatzen duen Erregelamendua onartzen duen 2020ko abenduaren 22ko 32/2020 Foru Dekretuan jasotako definizioaren arabera. Horretarako, **FakturaBAI ez den beste software bat erabiliko da.**

3. Laguntza emateko baldintza izango da dirulaguntza hauek argitaratzen direnetik 2022ko irailaren 1era bitartean, gutxienez 120 **TicketBAI** altako fitxategi bidaltzen jarraitzea. Horretarako, **FakturaBAI . ez den beste software bat erabiliko da.**

Azken baldintza hori betetzen ez bada, ebazpena aldatu egingo da eta, hala badagokio, dirulaguntza itzuliko da.

4. Ez dute administrazio-zehapenik edo zehapen penalik jaso behar sexuaren ziozko bereizkeria egiteagatik, Emakumeen eta Gizonen Berdintasuna lortzeko eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko otsailaren 18ko 4/2005 Legean aurreikusitakoaren arabera.

5. Ezingo dira onuradun izan Diputatuen Kontseiluak 2021eko irailaren 7an onartu eta 2021eko irailaren 14an Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutako deialdian (176. zenbakia) ez eta deialdi horren aldaketaren ondorioz (2021eko urriaren 27an Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratua, 206. zenbakia) onuradun izan ziren pertsona fisiko eta juridikoak.

6. Dirulaguntzaren izaera kontuan hartuta, eta osasun-egoerak eragindako inguruabar sozio-ekonomikoak eta transizio digitalak dakartzan kontsumo ohitura berriak, eta diruz laguntzen diren jarduera sektoreetan duen eragina kontuan

# Convocatoria 2022 de las ayudas del Programa para promover la digitalización en el sector del comercio y la hostelería en Gipuzkoa.

**Año:2022** | Promoción Económica

## DESCRIPCIÓN

Impulsar y reforzar el proceso de digitalización del sector del comercio y de la hostelería de Gipuzkoa como una de las vías fundamentales de su reactivación económica y de empleo.

## ENTIDADES BENEFICIARIAS

1. las personas físicas con actividad económica, las agrupaciones de personas físicas o jurídicas carentes de personalidad jurídica y las personas jurídicas cuyo domicilio fiscal, así como su centro de trabajo, se encuentre en Gipuzkoa y cuya actividad (con fecha previa al 1 de enero del 2022) se encuadre entre las relacionadas en el anexo de las presentes bases.

2. Que, en los últimos 15 días naturales anteriores a la fecha de la solicitud tramitada a través de Zergabidea, se hayan recibido en la administración tributaria guipuzcoana un mínimo de 15 ficheros de alta **TicketBAI**, según la definición recogida en el Decreto Foral 32/2020, de 22 de diciembre, por el que se aprueba el Reglamento por el que se desarrolla la obligación TicketBAI. Para ello, **se deberá utilizar un software diferente a FakturaBAI.**

3 La concesión de la ayuda quedará condicionada a que en el plazo comprendido entre la publicación de estas ayudas y el 1 de septiembre de 2022 se sigan enviando un mínimo de 120 ficheros de alta **TicketBAI**, utilizando para ello **un software diferente a FakturaBAI.**

El incumplimiento de este último requisito dará lugar a la modificación de la resolución y en su caso a la devolución de la subvención.

4. No deberán haber sido sancionadas, administrativa o penalmente por incurrir en discriminación por razón de sexo, según lo previsto en la Ley 4/2005 de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres y vidas libres de violencia machista contra las mujeres.

5. No podrán ser beneficiarias las personas físicas y jurídicas que fueron beneficiarias en la convocatoria aprobada en Consejo de Gobierno Foral el 7 de septiembre de 2021 y publicada en el Boletín Oficial de Gipuzkoa el 14 de septiembre de 2021 (número 176) y la modificación de las mismas, publicada en el Boletín Oficial de Gipuzkoa el 27 de octubre de 2021 (número 206)

6. Dada la naturaleza de la subvención en atención a las circunstancias de salud y socio-económicas derivadas de la crisis sanitaria y los nuevos hábitos de consumo que supone la transición digital; y su incidencia en los sectores de la

hartuta, Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzko martxoaren 7ko 3/2007 Foru Arauaren 12.2 artikuluan aurreikusitakoaren arabera, eskatzaileak salbuetsita geratzen dira zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituztela egiaztatzetik.

.7. Onuradunek baimena ematen diote Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Ingurumeneko Departukari Ogasun eta Finantza Departamentuarekin kontrastatzeko bideratutako dokumentazioa FakturaBai edo beste software bati dagokio.

actividad que se subvencionan, conforme a lo previsto en el artículo 12.2. de la Norma Foral 3/2007, de 7 de marzo de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa, se exime a los solicitantes de acreditar estar al corriente en sus obligaciones tributarias y ante la Seguridad Social.

7. Las personas y empresas beneficiarias autorizan al Departamento de Promoción Económica, Turismo y Medio Rural a contrastar con el Departamento de Hacienda y Finanzas si la documentación tramitada corresponde a Faktura Bai u otro software diferente.

## DIRULAGUNTZEN ZENBATEKOA

1. Enpresa bakoitzeko laguntzaren zenbatekoa mila eurokoa (**1.000,00 €)** izango da.

2. Bidalitako TicketBAI altako fitxategiei dagozkien faktura osoak edo sinplifikatuak **euskaraz** bidaltzen badira, laguntza **%20 handituko da**. Horretarako, eskabidea egiteko idazkian aukera hori adieraziko da, eta aldi horretan egindako eta baldintza hori betetzen duten fakturen, osoa edo sinpifikatua, gutxienez 5 irudi erantsiko dira.

## CUANTÍA DE LAS AYUDAS

1. La cuantía de la ayuda por empresa será de mil euros **(1.000,00€).**

2. En el caso de que las facturas, completas o simplificadas, correspondientes a los ficheros de alta TicketBAI enviados se emitan en **euskera**, la ayuda **se incrementará en un 20%.** A tal efecto, en el escrito de solicitud se indicará esta opción y se adjuntará la imagen de al menos 5 de las facturas, completas o simplificadas emitidas en dicho periodo que cumplan con este requisito.

## EMATEKO PROZEURA

1. Elkarrekiko lehiarik gabe onartuko dira laguntzak, aurrekontu zuzkidura agortu arte.

2. Eskaerak ebazterakoan kontuan hartuko da eskaeren jasotze hurrenkera eta horren arabera banatuko dira funtsak, baldin eta deialdian ezarritako baldintza guztiak betetzen badituzte, deialdian xedatutako aurrekontua agortu arte.

3. Dirulaguntzak emateko prozedura ofizioz hasiko da, aurreko atalean aipatzen den deialdi publikoaren bidez, zeina Diputatuen Kontseiluan onartu eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko baita.

## PROCEDIMIENTO DE CONCESIÓN

1. El procedimiento de concesión de la subvención será el de concurrencia no competitiva hasta agotar las disponibilidades presupuestarias.

2. Las solicitudes serán resueltas, distribuyéndose los fondos en el orden en que se reciban las solicitudes, siempre que cumplan todos los requisitos establecidos en la convocatoria hasta agotar el presupuesto consignado en la convocatoria.

3. El procedimiento de concesión de las ayudas se iniciará de oficio, mediante la convocatoria pública a la que se hace referencia en los apartados anteriores, aprobada por el Consejo de Gobierno Foral y publicada en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

## BATERAGARRITASUNA ALA BATERAEZINTASUNA

1 Dirulaguntza hauek bateragarriak dira beste edozein administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatuk, izan estatalak, izan Europar Batasunekoa edo izan nazioartekoa, eman lezakeen helburu bereko subentzio, laguntza, diru sarrera edo baliabiderekin.

2 Oinarri hauen babesean jasotako dirulaguntzaz garatutako proiektua garatzeko beste dirulaguntzaren bat eskuratu edota eskatu duen onuradunak modu fidagarrian jakinaraziko dio zirkunstantzia hori dirulaguntza Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko Departamentuari.

## COMPATIBILIDAD O INCOMPATIBILIDAD

1. Las presentes subvenciones serán compatibles con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad, procedentes de cualesquiera administraciones o entes públicos o privados, estatales, de la Unión Europea o de organismos internacionales.

2 La entidad beneficiaria que obtuviera y/o solicitará una subvención para el desarrollo del proyecto subvencionado al amparo de estas bases deberá comunicarlo de modo fehaciente al Departamento de Promoción Económica, Turismo y Medio Rural.

Gipuzkoako Foru Aldundia
Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko Departamentua

Diputación Foral de Gipuzkoa
Departamento de Promoción Económica, Turismo y Medio Rural

| BETETZEKO EPEAK | PLAZOS A CUMPLIR |
|---|---|
| • Eskaerak aurkezteko epea: **2022ko maiatzaren 3tik 2022ko ekainaren 23ko eguerdiko 12:00ak arte, edo aurrekontu zuzkidura agortu arte.** | • Plazo de presentación de solicitudes: **del 3 de mayo de 2022 hasta las 12:00 horas del 23 de junio de 2022, o hasta agotar las disponibilidades presupuestarias.** |
| **ARAUDI APLIKAGARRIA** | **NORMATIVA APLICABLE** |
| **Merkataritzaren eta ostalaritzaren sektorean digitalizazioa sustatzeko dirulaguntza programaren oinarri arautzaileak eta 2021. urteko deialdia.**<br>(2021eko irailaren 7ko Diputatuen Kontseiluaren erabakia. GAO 2021/176 zk. 2021eko irailaren 14an).<br>**Merkataritzaren eta ostalaritzaren sektorean digitalizazioa sustatzeko dirulaguntza programaren oinarri arautzaileak eta 2022. urteko deialdia.**<br>(2022ko apirilaren 26ko Diputatuen Kontseiluaren erabakia. GAO 2022/81 zk. 2022ko maiatzaren 2an). | **Bases reguladoras y de la convocatoria de 2021 de las subvenciones del programa para promover la digitalización en el sector del comercio y la hostelería.**<br>(Consejo de Gobierno Foral de 7 de septiembre de 2021. BOG: nº 176/2021 de 14 de septiembre de 2021)<br>**Bases reguladoras y de la convocatoria de 2022 de las subvenciones del programa para promover la digitalización en el sector del comercio y la hostelería.**<br>(Consejo de Gobierno Foral de 26 de abril de 2022. BOG: nº 81/2022 de 2 de mayo de 2022) |
| **ESKAERA EGITEKO URRATSAK** | **PASOS A DAR PARA REALIZAR LA SOLICITUD** |
| • **Informazioa eta dokumentuak**<br>**https://www.gipuzkoa.eus/eu/web/ekonomia.**<br>• **Hautagarritzat jotzen diren Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren epigrafeen zerrenda:**<br>**JEZ Epigrafeen Zerrenda**<br>• **Eskaerak aurkezteko helbidea:**<br>**zergabidea.gipuzkoa.eus.**<br>• **Eskaerak nola eskatu eskuliburua:**<br>**Eskuliburua** | • **Información y documentos**<br>**https://www.gipuzkoa.eus/es/web/ekonomia.**<br>• **Relación de epígrafes del Impuesto sobre Actividades Económicas que se consideran elegibles**<br>**Listado de epígrafes IAE**<br>• **Página web para presentar las solicitudes:**<br>**zergabidea.gipuzkoa.eus.**<br>• **Manual como realizar solicitudes:**<br>**Manual** |
| **EDOZEIN ZALANTZA IZANEZ GERO, KONTSULTATU** | **PARA CUALQUIER DUDA O ACLARACIÓN CONTACTAR CON** |
| EKONOMIA SUSTAPENEKO ZERBITZUA<br>• Kudeaketa administratiboa: 943.112009<br>• Kudeaketa teknikoa: 943.113770<br>covid19ekonomia@gipuzkoa.eus | SERVICIO DE PROMOCIÓN ECONÓMICA<br>• Gestión administrativa: 943.112009<br>• Gestión técnica: 943.113770<br>covid19ekonomia@gipuzkoa.eus |